

LEIHOETAKO OLENTZEROK BADU MAGIA GUREGAN

Estanis Arrieta, M^a Angeles Olea, Bego Amezaga, Alazne Ziarsolo, Libe Ziarsolo, Juan Luis Markaida

Badira, dagoeneko, zenbait urte Gabonak heltzean ikastolako nagusiok despistatu samar ibiltzen ginela sasoi hari nola ekin ez genekielarik.

Gutariko askok Gabon jaiak sentitzen genituen oso era berezi batez: gure hizkuntzaz samurki aritzeko unea, elkarri ipuinak eta gertaerak kontatzeko eta entzuteko aukera, oroimenak amankomunean ipintzeko eta, famili giro beroan, ohiturak zioena betetzeko aldi egokia izanik.

Gure ikastolan ere zera ikusi genuen: irakaslegoak bere gogoan zeukan ohitura, kantu zahar eta majia guztia azalera ateratzeko aukera ezin hobea zitekeela aldi hura.

Emozio horiek gure ikasleei transmititzea jarri genuen helburutzat eta, hala, Olentzero berpiztea erabaki genuen.

Hasiera batetan, Eskolaurreko umeak besterik ez genituen gogoan izan. Antolamendu erraz batez hurbilduko gintaizkion ospakizun nagusiari, non Olentzero (mozorroturiko maisu bat) ikastolara helduko zen.

Aipatu antolamendua orma baten jartzen genituen bost leihoetan zetzala. Horra, bada, komunikazio honen izenaren zergatia.

Gabonetako oporren aurreko bost egunetan, etxera abiatu baino lehen, Eskolaurreko umeak leiho hauen aurrean biltzen ziren eta ekintza batzuk ospatzen genituen.

Egun bakoitzean leiho bat irekitzen genuen, sorpresaz beteriko leihoa hain zuzen ere. Batean, andereñoa agertzen zen ipuin bat kontatuz; bestean, urrutiko bidaiariren batek kontatutakoa entzuten genuen,... Hauek Olentzeroren berri ematen zieten umei; gero eta hurbilagoko berriak, izan ere, egunak aurrera joan ahala.

Antzezkitzen haietako tresnak hauek ziren nagusiki: Gabon kantak, hitz jokoak eta leihoak irekitzeko hitz magikoak.

Jai eta ospakizun hauek, hain zuten eragin eta arrakasta handia gure ikasleengan ezen OHO-ra pasatzen zutenean ez

zituzten nahi izaten haurtzaroko oroimen haiek galdu, eta bizi-ki eskatzen ziguten OHO-ko mailetan ere Olentzeroren inguruko jaietan parte hartzen jarraitzea.

Urteak aurrera joan ahala, eta OHO-ko partaidetza gero eta handiagoa zelarik, toki handiagoak egokitu behar izan genituen ume guztiek beren ekitalditxoak gauzatu ahal izateko.

Ormetan dekoratutako leihoak handiagoak ziren. Baita barruan aurkitutako sorpresak ere, jakina. Lehen aho hutsez kontatutako ipuina antzezkitzen eta dantza bihurtu zen geroan, Abestiak ere, berrituz eta antzeztu genituen emanaldi aberatsago baten izenean.

Pixkanaka pixkanaka jaiaren zati guztiak bere izakera propioa definituz joan ziren, erritual antzeko bat gorpuztuz eta, azken batean, gidoi bat osatuz. Gidoi hau ikasleek bameratu dute Eskolaurreko urteetatik OHO-ko 8. mailararte prozesu etengabe batez.

Eta horrela heldu ginen antzezle eta ikusle kopuru hain handi izatera, non dena goitik behera berplanteatu behar izan genuen.

OHO-ko ikasle nagusiek ume txikien abestien leloari jarraitu baino zerbait gehiago egin behar zuten. Ikusle hutsak izatetik parte hartze handiagoa izatera jo behar zuten. Are gehiago, jaiaren dinamizatzailer bihurtu ziren, sorpresen protagonista, guztion artean sorturiko estilo eta kulturaren bozera-male hain zuzen.

Era berean, ikastolako maila guztietako irakasleak inplikatuago egongo ziren ordutik aurrera.

Beraz, jaiaren aurreko egunetan prestakizun lanei ekingo genien, gela guztiek zeregin antzekoari tarteak emanez. Eszenatokira igo ahal izatea —ikastolako guztiei euren fruituak erakusteko aukera eta euren trebetasunak eta graziak argira ateratzeko posibilitatea— faktor eragile oso garrantzitsua bilakatu zen irakasgai guztiak elkar loturik lantzeko.

Ikasle eta irakasleok gain gurasoak ere, beraien seme alabak hain ilusionaturik ikustean, sartu egin ziren jaiaren zereginetan, ikuslegoa handituz erabat.

Gaur egun denok hartzen dugu parte jai honetan, nork bere esparruan. Elkarrekin abestu eta kanta berriak ikasi egiten ditugu; umeei urtero dakarzkiguten aireak gureganatuz aurrera goaz. Eta, jakina, betiko ipuin eta ohiturak gogoratuz.

JAI HONEN GIDOIA GAUR EGUN

Ž 1. hiru hilabete zehar, geletan egindako irudiak eta dekoratuak gimnasioan, dagoeneko, ipinita daude. Antzokiko aurrekaldeko “orma”-n leihoak jarrita daude ere.

Ž Ume txikiak, handiak, sukaldariak, irakasleak, gurasoak..., denok biltzen gara Antzoki bihurtutako gimnasioan, leihoak aurrez aurre dauzkagularik, Gabon kantak, megafo-niaz, giroa berotzen ari direla.

Ž Jaiaren hasiera OHO-ko 8. mailakoek ematen dute, eszenatokitik, dotore-dotore jantzirik, ikuslegoa deitzen dutenean. Gelaz-gela izango dira aipatuak ume guztiak eta ordu-rako prestatutako mezu edo lelo batez erantzuten diete aurkezleei. Baita partaide garen beste guztiok: irakasle, sukaldari, guraso,...

Ž Ondoren, umeei galderak egiteko txanda dator. Zenbat leiho dauden, zenbat irekita, zenbat itxita, zenbat egun faltatzen den Olentzero agertzeko... Geletan ikasitako Gabon kantak aho batez eta barru-barrutik kantatzen dira. Giroa berotzen hasia dago, dudarik ez.

Ž Ixiltasuna behar dugu hurrengoan: argiak itzali egiten dira, foko batek bere izpiak zuzenduko dizkio eguneko leihoari, bete-betean. Denok batera hitz magikoak esanez leihoa irekiko da eta bertan —irudi batez— egunari dagokion sorpresaren berri emango zaigu: musika talderen baten berri, edo ta antzerti emanaldiarena, play back, agian, edo dantzal-diren batena..., auskalo!

Ž Aurkezleek iragarritako taldeko ordezkari batekin solasalditxo bat izango dute. Nondik diren etorriak, zer eskeiniko diguten, honuntzako bidean Olentzero ikusi dutenentz, Olentzerok ikastolako txikienentzako mezurik eman ote dien ala ez...

Ž Eta emanaldiari ekingo diote. Argiak, musika, ixiltasuna... dena dago prest.

Ž Amaiera dator jarraian, eta denok abestuko dugu Olentzeroren kanta. Egun bat gutxiago falta da Olentzero bera agertzeko gure artean. Elkarri agurra eman eta, hurrengo egunaren zai, alde egiten dugu.

Ž Aurreko ekitaldiak bost egunez errepikatzen badira ere, azken egunak zerbait berezia badauka. Olentzero bera dator guregana! Itxirik dagoen azken leihoa irekiz gero Olentzero

agertuko da, asto gainean, bere jazkera, txapela, bizarra, pipa eta guztiarekin. Hau umeen zoramena!

• Musika eta abestiez inguratutik, han jarriko da eszena-toki erdian eta umeei galderez josiko dute: zenbat urte daukan, nondik datorren, zer deritzon honi eta besteari...

Ž Ondoren, Olentzeroren amaigabeko ipuinak entzunda-koan, ume guztiak, banan-banan, igoko dira bere ondora eta honek musu eta oparitxo baria emango die.

Ž Oparitxoa eskutan dutela, aldamenean dagoen jantoki-hurbilduko dira txokolate bero eta goxoa dastatzera, eta turutak, oihu eta orruak nagusituko dira une batez.

ZENBAIT GOGOETA PEDAGOGIKO

Itxuraz simple den gidoi hau guretzat edukiez beteriko zerbait da.

Hainbat gauza **planteatzera** eraman gaitu **pedagogi** mailan:

* Gure **identitate propioa** eraikitzen ari gara; gure kulturaren zati bat berreskuratuz eta transmitituz, belaunaldi berriei darian kutxuz.

* Heziketaren **protagonismoa ikasleena** da,

* 2 urtetik 14 urterartereko ikasleak **proiektu berean** integratzen dira:

** OHO-ko 8. mailako ikasleek aurkezle lana egiterakoan, entzulego izango dena ezagutu behar dute aurretiaz: andereñoekin hitz egin behar dute berrikuntzak sartzeko ala ez, ume txikien izakera berriak ezagutzeko, “profesionaltasuna” behar dute kantuak entsaiatzean...

** Gainontzeko mailak arituko dira antzezteko testuak aukeratzeko, deklamazio saioak prestatzeko, dantzak eta abestiak ikasteko... Dekoratuak ere tarte handia daramate, moztaraz...

** Antolakuntza, autonomia eta elkarren arteko harremanak landu behar dira.

** Aukeraketa egin behar da eta horretarako erizpideak finkatu. Trebetasunak landu behar dira, norberaren zailtasunak gainditzeko asmoz, eta inor ere bazterrean gelditu gabarik.

** Guztiok ipintzen dugu zertxobait. Argi sistema batek, musika besteak eta dekoratua hurrengoak, denok gaude proiektuaz blai.

** Erreforma zehar lerroez mintzatzen zaigu, tolerantzia eta koheziketaz, bakeaz eta gaitasunaz, nork bere identitatea eraikitzeaz, autoestima eta kolektiboaren partaidetaz,...

Egun berezi hauetan balore guzti horiek gure buruen gain, hegan bezala, dabilta.

Leihoetako Olentzerok badu magia guregan. Ez da esaldi soil bat.